

NAHIAREN UDA

2026ko ekainaren amaiera zen. Bergarako mendixka batean, baserri handi batean, familia bat bizi zen. Baserriak hiru solairu zituen eta inguruan belardi eta zuhaitz asko zeuden. Han bizi ziren aita Josu, ama Maite, Nahia eta bere anaia txikia Hugo.

Gurasoek 40 urte zituzten. Nahia 15 urteko neska bat zen, eta Hugo 13 urtekoa. Nahia DBHko ikaslea zen eta uda iristeko gogo handia zuen.

—Ama, bukatu da kurtsoa! —esan zuen egun batean etxera iristean.

—Bai? Oso ondo! —erantzun zion amak.

Nahiak uda gehiena Bergaran pasatzen zuen. Bere lagun taldearekin egoten zen normalean. Taldean hamar lagun ziren: bost neska eta bost mutil. Bere lagunik onena Elene zen, bere gelakoa.

Uda hasi bezain pronto, lagunekin gelditzen hasi zen. Batzuetan plazara joaten ziren, beste batzuetan mendira edo ibaira.

Taldean bazegoen mutil bat, Markel. Markel eta Nahia aspalditik ezagutzen ziren, baina uda horretan gehiago hitz egiten hasi ziren.

Egun batean, plazan eserita zeudela, Elenek galdetu zion:

—Nahia... gustatzen zaizu Markel, ezta?

Nahiak pixka bat lotsatuta erantzun zuen:

—Ez dakit... agian bai.

Uda pasatzen joan zen. Uztaillean eta abuztuan askotan egoten ziren elkarrekin. Batzuetan gauetan ere gelditzen ziren paseatzeko.

Markel eta Nahia gero eta gehiago hitz egiten hasi ziren. Denek nabaritzen zuten zerbait berezia zegoela bien artean, baina ez zuten inoiz pausua eman.

Abuztuko gau batean, lagun guztiak mendiko bide batean paseatzen ari ziren. Pixkanaka taldeak aurrera egin zuen, eta azkenean Markel eta Nahia atzean geratu ziren.

—Oso ondo pasatzen dut zurekin —esan zuen Markelek.

—Nik ere —erantzun zuen Nahia irribarrez.

Momentu polita izan zen, baina hala ere ez zuten ezer gehiago esan.

Uda amaitzen ari zen, eta iraila iritsi zen. Egun batean, Nahiari mezu bat iritsi zitzaion mugikorrera. Mezuan esaten zuen aukera bat zuela: ikasturte erdia Estatu Batuetan ikasteko.

Nahia harrituta geratu zen.

—Ama... begira hau —esan zuen.

Amak mezua irakurri zuen.

—Aukera handia da hau, Nahia.

Baina Nahiak ez zekien zer egin. Ez zuen bere lagunak utzi nahi, ezta Markel ere. Handik egun batzuetara, lagunekin gelditu zen plazan.

—Zerbait dut kontatzeko —esan zuen pixka bat urduri.

Denek begiratu zioten.

—Agian... Estatu Batuetara joango naiz ikastera, sei hilabetez.

Isilune bat egon zen momentu batez.

—Benetan? —esan zuen Elenek— Oso urrun dago.

—Bai... baina aukera ona da —erantzun zuen Nahiak.

Azkenean, asko pentsatu ondoren, erabaki zuen joatea.

Neguan Estatu Batuetan egon zen. Hasieran arraroa egin zitzaion, baina pixkanaka gustatzen hasi zitzaion. Hala ere, Bergara faltan botatzen zuen.

Markelekin askotan hitz egiten zuen mugikorretik.

—Zer moduz zaude? —idazten zion Markelek.

—Ondo, baina zuek faltan botatzen zaituztet —erantzuten zuen Nahiak.

Denbora pasa zen eta azkenean bueltatzeko momentua iritsi zen. Nahiak poz handia zuen Bergarara itzultzeko. Larunbat batean iritsi zen etxera. Hurrengo egunean, Elene eta beste lagun batzuk etxera joan ziren ikustera.

Hasieran dena normala zen, baina gero Elenek esan zion:

—Nahia... badugu zerbait kontatzeko.

—Zer gertatu da?

—Markel... beste neska batekin egon da.

Nahia harrituta eta pixka bat haserre geratu zen.

—Eta zergatik ez didazue lehenago esan?

—Atzo enteratu ginen... —esan zuen Elenek— Ez genuen lehenago jakin.

Momentu horretan Nahiak ez zekien zer egin. Erabaki zuen Markelekin ez hitz egitea.

Markelek mezua bidaltzen zion askotan, baina Nahiak ez zuen erantzuten. Astelehenean, klaseak hasi ziren berriro. Nahiak hirugarren ebaluazioa Bergaran egin behar zuen.

Klasean, Markel beregana hurbildu zen.

—Nahia, hitz egin dezakegu?

—Zer gertatu da ni ez nengoenean? —galdetu zion Nahiak.

Markelek egia kontatu zion.

—Bai... egia da. Baina ez zen gauza serioa. Eta zu faltan botatzen zintudan.

Baina Nahiak burua astindu zuen.

—Hobe da ez hitz egitea gehiago.

Hala ere, lagun talde berean zeuden. Asteburuetan denak batera geratzen ziren.

Pixkanaka dena normalagoa bihurtu zen. Nahiak egiten zuen ezer gertatu balitz bezala. Denbora pasa zen, eta beste uda bat iritsi zen. Uda horretan, Nahia eta Markel berriro ondo hitz egiten hasi ziren.

Egun batean, Markelek esan zion:

—Barkatu berriro. Benetan sentitzen dut.

Nahiak irribarre egin zuen.

—Lasai... dena pasatu da.

Berriro lagunak izan ziren. Baina Nahiak bazekien gauza bat: lehen sentitzen zuena jada ez zegoen.

Eta horrela amaitu zen Nahiaren uda berezi hura.

Ariadna Anton 2026/03/13